

## 6/13 IRIZPENA

### EAEko Arreta Goiztiarreko Esku-hartze Osoari buruzko Dekretu Proiektuari buruzkoa

Bilbon, 2013ko azaroaren 22an

#### I.- SARRERA

2013ko urriaren 30ean Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren idazki bat sartu zen. Bertan, “EAEko arreta goiztiarreko esku-hartze osoari buruzko Dekretu proiektua”ri buruzko txostena eskatu zuten, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari buruzko maiatzaren 17ko 8/2012 Legeko 3.1.b) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Kontsultatutako ekimen legegilearen xedea Euskadiko Autonomia Erkidegoan osasun, hezkuntza eta gizarte zerbitzuen eremuetatik arreta goiztiarraren esparruan burutzen diren esku-hartzeak antolatu eta koordinatzeko oinarritzko arauak ezartzea da, zerikusi zuzena duten osasun, hezkuntza eta gizarte zerbitzuen sistemen jarduketak era egokian koordinatzeko eredu oso eta eraginkorra bermatu xedez.

Berehala bidali zitzairen agiriaren kopia Batzordearen osoko bilkurako kide guztiei, euren proposamenak eta iritziak igor zitzaizuten eta haiek dagokion lan batzordeari helarazteko, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Funtzionamendu arautegian xedatutakoaren arabera. 2013ko azaroaren 13an Gizarte Garapenerako Batzordea bildu zen, eta hartutako erabakietan oinarrituta, Irizpen Proiektu hau egin da, Batzordearen azaroaren 22ko osoko bilkurari igortzeko. Han aho batez onartu da.

#### II.- EDUKIA

“arreta goiztiarreko esku-hartze osoari buruzko Dekretu proiektua” testuak arrazoen azalpena, lau kapitulutan banatutako 25 artikulua, xedapen gehigarri bat, xedapen iragankor bi eta azken xedapen bi dauzka. Hona hemen haren edukiaren laburpena.

##### Arrazoen azalpena

Arreta goiztiarra honela definitu da: “0-6 urteko haurrei, familiari eta inguruneari zuzenduriko esku-hartzeen multzoa, helburutzat nahasmenduak dauzkaten haurrek beren garapenean agertzen dituzten, edo horiek pairatzeko arriskua duten, premia iragankor edo iraunkorrei al bait lasterren erantzutea duena”.

Garapeneko nahasmenduek alderdi askotako izaera eta, maiz, konbinatua daukate eta, hori dela-eta, arreta egokirako behar diren esku-hartzeetan umearen osotasuna aintzat hartu behar da, osotasun horretan familia bera ere sartuz. Bestalde, nahasmendu horien aniztasuna eta konplexutasuna direla-eta, diziplina espezializatu batzuek esku hartu behar dute, era koordinatuan. Hori dela-eta, nahasmendu horiei heltzeko, diziplina arteko eta zeharkako ikuspegia duen profesional talde batek esku hartu behar du.

Gure autonomia erkidegoan, aurrerapen handia egin da premia horiei erantzuten; izan ere, hainbat motatako planak, programak eta ekimenak abiarazi dira, osasun, hezkuntza eta gizarte zerbitzuetako eskumena duten Sailek bidez landu daitezkeen hiru jarduketa eremu nagusietan:

Hala, osasun sistemak honako helburuak dauzka: haurren urritasunen prebentzio programen garapena eta arreta, arriskuan dagoen biztanleriaren jarraipena eta esku-hartze goiztiarreko proposamenetako lankidetzak. Zehazkiago, Euskadiko osasun publikoak arlo horri zuzenean lotutako programa eta jarduketa zabalak burutu ditu, bai prebentzio arloari bai arlo terapeutikoari dagokienez.

Hezkuntza arloko esku-hartzea haurren eskolatzearen bidez burutzen da. Euren zorro edo aurkezpen publikoan jasotako egungo eta etorkizuneko hezkuntza zerbitzu guztien helburua hezkuntzako laguntza premia zehatzak dituzten ikasle guztien hezkuntzarako eskubidea eta aukera berdintasuna bermatzea da. Ikasle horien artean, esku-hartze goiztiar eta iraunkorra behar dezaketenak daude.

Gizarte zerbitzuen arloan, arreta goiztiarreko fasean esku har dezaketen jarduketa multzo handi bi daude. Alde batetik, babesgabetasuneko arriskuan edo egoeran dauden haurren babesaren eremuko jarduketak, Haurren eta Nerabeen Arreta eta Babesari buruzko otsailaren 18ko 3/2005 Legearen esparru arautzailean; eta, bestetik, autonomia sustatzeko eta ezintasunari eta mendekotasunari arreta emateko jarduketak, mendekotasunaren esparru arautzailean eta gizarte zerbitzuen eremuan indarrean dagoen araudi autonomikoaren esparruan.

Zerbitzu, programa eta jarduketa bilbe aberats eta konplexu horrek, zalantza barik, funtsezko aurrerapenak bermatu ditu azken hamarkada bietan baina, gaur egun, oraindik dauka konpondu beharreko disfuntzio bat: zatikatuta dabil, eta ez dago zerikusia duten arreta sistemen arteko koordinazio eta lankidetzak egokirik. Errealitate hori ezagututa eta, sistema osoago eta ondo koordinatu bat eratuz, eremu guztietan egindako ahaleginen efikazia, eraginkortasuna eta estaldura hobete litezkeela jakinda, 2008an, eta eredu koordinatua definitu nahi zuten hiru foru aldundien zenbait ekimenekin batera, Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluak premiazkoa iritzi zion hausnarketa bultzatzeari eta horretarako lan horri berariaz helduko zion batzorde bat eratu zuen. Batzorde horretan osasun, hezkuntza eta gizarte zerbitzuen arloko ordezkariak parte hartu zuten.

Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluak sustatutako hausnarketaren ondorioz, 2010aren amai aldera “*Arreta goiztiarreko eredu Euskal Autonomia Erkidegorako*” izeneko dokumentua prestatu zen. Dokumentu hura erreferentzia izan zen horretarako sortutako erakundearen arteko batzorde tekniko batek 2012aren erdialdera arauketa teoriko-praktikoko proposamen bat aurkez zezan. Proposamen hura da, hain zuzen ere, Dekretu honen jatorria.

## Xedapenak

“Xedapen orokorrak” izeneko **I. Kapitulu**n (1-6. artikulua), Euskal Autonomia Erkidegoko arreta goiztiarreko esku-hartze osoaren esparru teoriko-praktiko eta kontzeptuala egituratu da, eta arauaren xedea zehaztu da bertan; arreta goiztiarra eta haren berariazko helburuak definitu dira; arreta goiztiarraren eremu subjektiboa edo biztanleria hartzailea ezarri da; esku-hartze mailak azaldu dira; eta esku-hartze osoaren printzipio gidariak garatu dira.

**II. Kapitulu**n (7-13. artikulua), esku-hartze eredu osoaren eta hiru sistemetako baliabideen koordinazioaren oinarriko arauak xedatu dira. Koordinazioa Erakundearen arteko Arreta Goiztiarraren Koordinazio Batzordearen eta Erakundearen Arteko Arreta Goiztiarraren Batzorde Teknikoaren bidez egituratzen da. Koordinazio organo horien xedea, osaketa, antolakuntza eta eginkizunak Dekretuan bertan ezarri dira.

Antolakuntza funtzional espezializatuaren funtsezko elementuak Arreta Goiztiarreko Balorazio Taldeak (AGBT) eta Arreta Goiztiarreko Esku-hartze Taldeak (AGET) dira, bigarren mailako foru arreta zerbitzuen mendekoak biak. Arreta Goiztiarreko Balorazio Taldeek kasuen balorazioa egin, horren arabera arreta pertsonalizatuko plana prestatu, baimena izapidetu, emaitzak ebaluatu, alta baimendu eta kasu bakoitzean komeni den jarraipena egiten dute. Arreta Goiztiarreko Esku-hartze Taldeek, bestalde, arreta pertsonalizatuko plana ezartzeko behar diren jarduketak burutzen dituzte.

Zentzu horretan, gizarte zerbitzuen esku-hartzeari buruzko alderdi zehatzen gaineko arauen garapenak agindu arautzaile batzuei igorri beharrean, gizarte zerbitzu horien jarduketaren homogeneotasuna Dekretu honen bidez bermatzea hobetsi da.

Horretarako, **III. Kapitulua** (14-19. artikulua) Arreta Goiztiarreko Esku-hartze Taldeek esku hartzeko prozedurari buruzkoa da berriaz. Bertan, honakoak definitu dira: esku-hartzea eskuratzeko baldintzak eta prozedurak; arreta pertsonalizatuko plana; eta esku-hartzea amaitzeko zioak, hiru sistemetako edozeinek jarraipena egiten edo jarduten jarraituko balu ere.

Azkenik, **IV. Kapitulua** (20-25. artikulua) Haurren Garapeneko eta Arreta Goiztiarreko Zentroek, arreta goiztiarreko esku-hartzeak burutzen dituzten egitura antzemangarriak izanda, bete beharko dituzten langileria, material eta funtzio baldintzak eta herri-administrazioarekin itundu, kontratatu edo hitzartu ahal izateko baimentze eta homologazio araubidea arautu ditu.

### III.- GOGOETA OROKORRAK

#### 1. Arauaren balorazio orokorra

EAEko Arreta Goiztiarreko Esku-hartze Osoari buruzko Dekretu proiektuari buruzko iritzia emateko eskatu zaigu. Haren bidez, Jaurlearitzak garapeneko nahasmenduak dauzkaten edo izan ditzaketen zero eta sei urte arteko haurrentzako arreta goiztiarreko esku-hartze osoko eredu baterako arau esparrua ezarri du, haren kalitatea eta eraginkortasuna bermatzeko, euren eskumenen esparruan jarduketak burutzen dituzten sistema guztiek eta diziplina arteko ikuspegia duten profesionalak parte hartuta.

Zehazki, eta Arrazoen azalpenean esan legez, arreta goiztiarri buruzko diziplina anitzeko esparru teoriko-praktiko eta kontzeptuala eta antolakuntza funtzionalerako eta baliabideak koordinatzeko ereduaren oinarritzko formulazioa zerikusia duten sistemetako profesionalen eskura jarri nahi dira, eta Batzordeak ondo deritzo helburu horri.

Izan ere, poza agertu eta azpimarratu behar dugu, egungo garaiotan, gure erkidegoak Dekretu honen xedea diren babes zerbitzu, programa eta jarduketa bilbe hori eduki eta garatu izana, haien onuradunak garapeneko nahasmenduak dauzkaten edo pairatzeko arriskua duten 0 eta 6 urte arteko haurrak eta haien familia inguruneak direlarik.

Zentzu horretan, egokia deritzogu arrisku egoerak prebenitzearen garrantzia nabarmentzeari, eta Dekretuak 5. artikuluan "lehen maila" deritzonari balioa emateari. Maila horretan "*hiru sistemetan haurren garapenean urritasunak edo nahasmenduak agerraraz litzaketen baldintzak saihestea bilatzen duten jarduketak*" sartzen dira.

Halaber, balorazio ona egin dugu zerikusia duten sistemak (Osasuna-Hezkuntza-Gizarte Zerbitzuak) eta esku hartzen duten erakundeak (Eusko Jaurlearitza-Foru Aldundiak-Udalak) efikaziaz eta eraginkortasunez koordinatzerakoan gertatzen diren disfuntzioak konpondu ahal izateko arau esparrua emateko helburu zehatzaz, esku-hartze hori eta erantzuna egiatan osoak izateari begira. Zentzu horretan, ordea, lurralde mailan irizpideak batu beharra azpimarratu behar da; izan ere, gaur egun hiru lurraldeetan jarduketa asimetrikoa da eta, hala, esaterako, 3 eta 6 urte arteko etapako zerbitzuak Bizkaian baino ez dihardu.

Azkenik, gogoan hartu behar da, Dekretua indarrean sartutakoan, adimen eta garapeneko ezgaitasuna duten pertsonen familiei zerbitzua ematen ibilbidea egin duten erakunde eta elkarte batzuk geratuko diren egoera. Izan ere, zaila gertatuko zaie, aurreikusitako urtebeteko epean eta egungo egoeran, egokitu eta IV. kapituluaren xedatutako langileria, material, eta funtzio baldintzak betetzea, baita 13.5. artikuluan Arreta Goiztiarreko Esku-hartze Taldeentzat ezarritako zerbitzu guztiak eskaintzea ere.

Edonola ere, uste dugu Lehenengo Xedapen Iragankorrek ezarritako baldintzetara egokitzeko epeak jarduerari eutsi nahi dioten zentroak eta administrazioarekin hitzarmen motaren bat eskatuko dutenak bereizi behar lituzkeela.

Azkenik, uste dugu arauan jardueraren eta zentro homologatuei eskatutako betekizunak eta baldintzak betetzearen jarraipen eta kontrolerako mekanismoak eta xedapenak falta direla, zerbitzuak emateko eskatu beharreko estandarrei eustea berma dadin. Zentzu horretan, 25. artikulua idazketan, gure ustez, zentro pribatuak homologatzeko egintza administratiboa onesteko eska daitezkeen baldintzen eta ondoren jarraipen eta kontrol administratiboko prozesuen bidez

betetzen direla berrestearen arteko nolabaiteko nahastea dago, artikuluko horri buruzko berriarazko gogoetan ikusiko den bezala.

## 2. Arreta Goiztiarreko Esku-hartze Taldeak

Deigarria da Arreta Goiztiarreko Balorazio Taldeak (AGBT) eta Arreta Goiztiarreko Esku-hartze Taldeak (AGET) arautzeko, 12 eta 13. artikuluetan, hurrenez hurren, dauden zehaztapen maila desberdinak. Izan ere, AGBTei buruz, 7 teknikari espezializatutako eta administrazio eta kudeaketako laguntzak osatzen dutela adierazi den bitartean, AGETei buruz ez da zehaztu lurralde historiko bakoitzeko zenbat talde izango den ezta taldeak zenbat lagunek osatuko dituzten.

Hain zuzen ere, haurrek eta haien familiek behar dituzten arreta goiztiarreko zerbitzuak gauzatu eta eman behar dituzten dispositiboak izanda, gure ustez ona litzateke gutxienez lurralde bakoitzeko gutxieneko kopurua eta haien osaketa zehaztea, AGBTentzat egin legez; izan ere, azken horien eginkizuna, erabakigarria bada ere, tekniko eta administratiboa da zerbitzuak ematekoa baino gehiago.

Dirudenez, AGETei buruzko zehaztugabetasun horiek Dekretuko 20 eta 25. artikuluen artean "Haurren Garapenerako eta Arreta Goiztiarreko Zentro"entzat egindako arauketarekin dute zerikusia. Arauketa hori "erantzukizun publikokoei, kudeaketa publikoa edo kudeaketa pribatu itaundua, kontratatua edo hitzarmenen bidezkoa izan, zein Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistematan sartzen ez diren titulartasun eta kudeaketa pribatukoei" aplikatzen zaie (20.2. art.).

Azken batean, zentroek, titulartasun publikokoak badira, 22, 23 eta 24. artikuluetan xedatutako "langileria, material eta funtzio baldintzak bete" behar dituzte eta, erakunde pribatuen mendeakoa badira, aldiz, jardun ahal izateko, lehenago homologatuta egon behar dute eta, horretarako, artikuluko horietan xedatutako material, funtzio eta langileria baldintza berberak eta, horiez gain, 25. artikuluko xedatutako kalitate, efikazia, kostu ekonomiko eta sozialeko irizpideak ere bete behar dituzte.

Langileria baldintzei helduz, 22. artikuluko 13. artikuluan xedatutako arauketara igortzen du, talde horien azkeneko dimentsioa zehaztu gabe, pertsona berberak zenbait eginkizun meta baitituzte<sup>1</sup>. Gure iritziz, AGETen osaketarako geratzen diren tarteak eragin kaltegarria izan dezakete eman beharreko arretaren kalitatea bermatzeko orduan eta, ordea, homologazio prozesua gainditzea ahalbidetuko lukete.

Halaber, 22. artikuluan aipatu diziplinei (psikomotritizitatea, psikoterapia, fisioterapia, logopedia eta gizarte lana) dagokien kualifikazioa zehaztu behar litzateke, aipatu eginkizunak betetzeko eskatzen diren titulazio zehatzak zehaztuz, eskatzen diren titulazio akademiko edota profesionaltasuneko ziurtagiriei lotuta.

## IV.- GOGOETA ZEHATZAK

### Arrazoen azalpena

Atal honen idazketa honela osatzea gomendatzen da:

- 3. orrialdea, 2. paragrafoa:

"Haurren garapeneraren ezaugarri dagokienez, lehen urteetan zenbait eginkizun eskuratzen dira pixkanaka, hala nola jarreraren kontrola, joan-etorrietarako autonomia, komunikazioa, hitzeko hizkuntza eta gizarte interakzioa. Bilakaera hori umetoki barruko bizitzan hasitako nerbio sistema heltzeko prozesuari estuki lotuta dago, baita antolamendu emozional eta mentalari ere, eta horretarako, egitura genetiko egokia ez ezik, gizakiaren oinarriko premiak ase behar dira, zenbait mailatan: biologikoak,

<sup>1</sup> Izan ere, funtzio baldintzei buruzko 24. artikuluan, 2. idatz-zatian, honakoa xedatu da: "Profesional taldeko kideetako batek erantzukizun, zuzendaritza, ordezkaritza eta koordinazio teknikoko eginkizun bereziak beteko ditu. Eginkizun hori, eta zentroaren kudeaketa eta administrazioko zuzendaritzari dagokiona, pertsona berberak har ditzake".

psikoafektiboak **eta sozialak, haurren eta haren ingurunearen arteko interakziokoak, lotura afektibokoak eta egonkortasunekoak, jasotzen dituen zaintzetan".**

- 5. orrialdea, 1. paragrafoaren ondoren eranstea:

**"Lan filosofia horrek profesionalen eguneroko lanari eragin behar dio. Hala, honako oinarriak nagusitu behar dira: taldeko lana, haurra eta haren familia sistematzat hartzea eta arreta goiztiarra zuzentasuna eta gabeziak, urritasunak eta etorkizuneko premiak prebenitzea bilatzen duen prestazio zerbitzu kualifikatutzat hartzea. Egiten den antolakuntza proposamenak erkidegoko arreta goiztiarreko zerbitzuen organigramaren barruko profesional eta talde guztien esku-hartzea eta beste erakunde eta organismo batzuek ematen dituzten zerbitzuak, batez ere osasun zerbitzuak, erabiltzaileen eskura egotea erraztu behar ditu.**

**Zentzu horretan, arreta goiztiarrari buruzko eskumenak dituzten erakunde guztien lankidetzaren esparru bat ezartzea komeni den aztertu behar da, gizarte ongizatearen edo osasunaren arloan izan, ezgaitasunen bat duten adingabeek eta haien familiak behar duten arreta espezializatua eta uanean-uean esku hartuko duten zerbitzu eta profesional guztien koordinazio zuzena bermatu xedez, ahal den neurrian ezgaitasunaren ondorioak gutxitzeko, gurasotasun arduratsua eta familiaren funtzionaltasuna sustatzeko eta adingabearen eta familiaren gizarteratzea bultzatzeko".**

## 2.2. artikulua. Arreta goiztiarraren definizioa eta izaera

Artikulu honen idazketa honela osatzea gomendatzen da:

"2.- Erantzukizun publikoaren esparruan, arreta goiztiarraren izaera mistoa eta diziplina artekoa da, eta esku hartzen duten osasun, hezkuntza eta gizarte osagaiak, hurrenez hurren, osasun, hezkuntza eta gizarte zerbitzuen sistemen eskumenean baitan sartzen dira.

**Diziplina arteko koordinazioak eta burutu beharreko esku-hartzeak kasu bakoitzean eta familia bakoitzarekin esku hartzen duten profesional guztien ikuspegi partekatuaren emaitza izan behar dute. Bestalde, haur bakoitzarekin egindako esku-hartzeak koordinatuak izan eta helburu orokor bati erantzun behar diote: haurren eta haren familiaren ahalik eta garapen eta ongizaterik handiena erraztea".**

## 5.b) artikulua. Esku-hartze mailak

Komenigarria deritzogu testua honela osatzeari:

"b) Bigarren maila, garapeneko urritasunen edo nahasmenduen agerpena edo haiek pairatzeko arriskua goiz atzeman eta diagnostikatzera zuzendutako jarduketak guztiak barne, atzemandako baldintzen ondorio kaltegarriak saihestu edo murriztu xedez. Funtsean, honela garatuko dira:

-hobetu daitezkeen prozesuetan tratamendu medikoak aplikatuz;

-oinarrizko gaitasunak garatzea bermatzen duten curriculumen egokitzapenak eta lan plangintza pertsonalizatuak diseinatuz eta ezarri;

-laguntza produktuak eta ingurune fisikoaren egokitzapenak aginduz; **baita garapeneko nahasmenduak edo haiek pairatzeko arriskua dauzkaten haur guztiek ikaskuntzak besteen baldintza berberetan eskuratu ahal izateko behar diren giza baliabideak eta baliabide materialak, eremu guztietan sartzea erraztuz,** eta

-gizarte esku-hartzeko programak diseinatuz eta ezarri".

## 12.4. artikulua. Arreta Goiztiarreko Balorazio Taldeak (AGBT)

Gure ustez, kontu handiz egin behar da talde horietako Hezkuntza Premia Bereziaketako aholkularien banaketa, irizpide demografikoei jarraituz; hala, Bizkaiko AGBTari gutxienez hiru profesional legozkioke, eta ez bi, artikulu horretako laugarren idatz-zatiko b) puntuan xedatu legez.

## 16. artikulua. Eskabidea

Arreta behar duen umearen ongizatea bermatu xedez, eta haren familiak behar dituen zerbitzuaren edo zerbitzuen eskabidea betetzeko eskatzen bada ere, uste dugu komenigarria dela artikulua amaietan honakoa eranstea:

**“Arestikoa hala izanda ere, kasua atzematen den unetik eman beharko da arreta.”**

## 19.4. artikulua. Arreta goiztiarraren amaiera

Artikulu honen idazketa honela osatzea gomendatzen dugu:

“4.- Arreta Goiztiarreko Esku-hartze Taldeen zerbitzuak amaitzeak ez du bazterten jarraipena, ezta lehen edo bigarren mailako arretako gizarte zerbitzuek edo osasun eta hezkuntza zerbitzuek haurren premiei, haren gaitasunen garapenean, erantzuten jarraitzen dela bermatzeko burutzen duten esku-hartzea ere. Kasu bietan, esku-hartzean eta jarraipenean, diziplina arteko koordinazioari eustea gomendatzen da.

**Arrazoi horregatik, esku-hartze taldeen zerbitzuak amaitutakoan, adingabea bere premiei erantzuten jarraituko duen zentro edo erakunde egokira eramana izateko behar diren neurriak hartu beharko dira.”**

## 22. art. Langileriari buruzko baldintzak

Lehenbizi, eta gogoeta orokorretan azaldutakoa errepikatuz, Haurren Garapeneko eta Arreta Goiztiarreko zentro bakoitzak izan behar duen AGETko profesional kopurua eta esleitutako eginkizunak bermekin burutzeko kualifikazio egokia zehaztu behar lirateke.

Are gehiago, zerrendatutako bost eginkizunei (psikomotrizitatea, psikoterapia, fisioterapia, logopedia eta gizarte lana), gure ustez, psikologia, pedagogia eta psikopedagogia erantsi behar litzaizkieke; izan ere, asko dira titulazio horiekin, esaterako, adimen eta garapeneko ezgaitasuna duten pertsonentzako arreta goiztiarreko zerbitzuetan eta, zehazkiago, alderdi kognitiboen garapenean lan egiten duten profesionalak<sup>2</sup>.

## 25. art. Homologaziorako baldintzak

Haurren Garapeneko eta Arreta Goiztiarreko zentroen homologaziorako baldintzei dagokienez, gogoeta orokorretan artikulu honi buruz esan den bezala, idazketak nahasmena ekar dezake.

Izan ere, baldintza horiek eta homologazio eskabidea ebazteko materialki egiaztagarriak diren baldintza jakin batzuk betetzen direla frogatu beharrezkin batera, ondoren, hots, homologatu ahal izan den zentroak egiten duen jardueratik, baino ezin froga daitezkeen beste materia batzuk sartu dira.

Edonola ere, baldintza horietako batzuk ulertuko lirateke Dekretua indarrean sartzen den egunean zerbitzuak ematen ari diren entitateen zentroen homologaziorako pentsatuta baleude. Hala bada, hori ez litzateke arauko artikuluetan jaso behar, xedapen iragankorretan baizik.

Zehazki, honako baldintzak jarduera burutzen ari direnek baino ezin dituzte frogatu:

- Kanpoko entitate batek aldeko hirurteko ebaluazio txostena emateari dagokionez, uste dugu nahikoa litzatekeela zentroaren beraren txosten bat eta, egokia balitz, eskatutako baldintzak betetzeari buruzko adierazpen arduratsu bat.
- Langileriaren egonkortasuna. Eskakizun hori administrazioarekin hitzarmen bat sinatzeari lotuta ulertzen da, denboran egitura egonkorrari eusteko konpromisoa hartu ahal izateko.

<sup>2</sup> Bizkaian, gara batean Arreta Goiztiarreko Zerbitzuen Egokitasunaren Balorazioa lortzeko halako profesionalak eskatu ziren, eta eurak dira gaur egun haur guztien estimulazio tratamendu orokorrak burutzen dituztenak.

- Lan-absentismo indizea %5 baino txikiagoa. Ez gatoz bat baldintza hori bete beharrarekin, absentismoa ez baitago bakarrik enplegatzailearen eskuetan.
- Lan-istripu indizea %6 baino txikiagoa. Gure ustez ez da komeni homologazioetan halako klausulak orokortzea. Edonola ere, horren balorazioan, sektoreko batez bestekoak izan behar luke erreferentzia.

Esandako guztiagatik, artikulua honela aldatzea gomendatzen dugu:

### 25. art. Homologaziorako baldintzak

“Homologatuak izateko, entitate pribatuen mendeko haur garapeneko eta arreta goiztiarreko zentroek, xedatutako material, funtzio eta langileria baldintzak ez ezik, kalitate, efikazia eta ekonomia eta gizarte kostuko honako irizpideak bete beharko dituzte:

- Balantze ekonomiko saneatua.

- Helburuak eta, hala balegokio, programak eta jarduerak, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemak plangintza eta programazioari buruz finkatutako helburuei eta jardunbide ildoei egokitzea.

- Administrazio eskudunak ikuskaritza eginkizunak betetzean iradokitako hobekuntzak betetzea, gizarte zerbitzuen araudia urratu gabe, hobegarriak irizitako alderdiei dagokienez, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuen baimentzea, erregistratzea, homologazioa eta ikuskapena arautzen duen martxoaren 10eko 40/1998 Dekretuko 26.1 e) artikuluan xedatutakoari jarraituz.

- ~~Kanpoko entitate independente batek egindako aldeko ebaluazio txostena, zein hirutokoa izango baita; haren barruan sartuko da **Entitatearen txostena, honako argibideak emanez:**~~

-arretaren kalitatearen ebaluazioa;

-artatutako pertsonen gogobetzearen ebaluazioa; eta

-zerbitzuak jasotako erreklamazio eta kexen eta haiei emandako erantzunen berrikusketa **kudeaketa**.

~~-Langiloriaren egonkortasuna. Helburua betetzat joko da langileen %80k kontratu mugagabea daukatenean.~~

~~-Lan absentismo indizea %5 baino txikiagoa.~~

~~-Lan istripu indizea %6 baino txikiagoa”.~~


## V.- ONDORIOAK.

Euskadiko EGABek egokia deritza “EAEko arreta goiztiarreko esku-hartze osoari buruzko Dekretu proiektua”ren izapidetzeari, kontsulta organo honek egindako gogoetak kontuan hartuta.

Bilbon, 2013ko azaroaren 22an



OE Batzordeburua  
Juan María Otaegui Murua



Idazkari nagusia  
Francisco José Huidobro Burgos